

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	93 - ZIUR
Atala:	9301 - ZIUR
Programa:	010 - Industri Ziberseguridadeko Zentrua Fundazioa
Funtzionala:	433 - Enpresa garapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Zentroaren helburua da lurraldeak dituen Fabrikazio Aurreratuaren arloko ahalmenak indartzea; bereziki, Zibersegurtasun Industrialaren arloan, teknologia-sektorearen garapena sustatuz, eta Gipuzkoako enpresen nazioarteko kokapena eta lehiakortasuna indartuz; bereziki, industria sektorekoenak.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

2018. urtean egiaztatu da aurretik egindako diagnostikoa egokia izan dela. Eragileekin egindako bilerek, hedapen jardunaldiek eta industria enprekin izandako harremanek agerian uzten dute, alde batetik, industria sektorean garatzen ari diren industria prozesuetan aplikatutako teknologia sartzeko prozesua, eta, bestetik, prozesu horretan zibersegurtasunaren ikuspegia txertatzeko beharra.

Beharraren eboluzioa:

Orokorrean, baieztatu daiteke aurretik identifikatutako beharra mantendu egiten dela. Hori horrela, 2018. urtean baieztatu ahal izan da, alde batetik, maila desberdinetan lan egiteko beharra, eta, bestetik, Gipuzkoako industria enpresei zibersegurtasunaren alorrean alderdi independente eta fidagarri bat eskaintzeko beharra. Behar garrantzitsuenen artean, hauek identifikatu dira, besteak beste: maila guztietan erakundeak duen sentsibilizazioarekin zerikusia duten beharrak, erakunde horien ingurunean aplikatu daitezkeen zibersegurtasun neurriak ezagutzea, zibersegurtasun alorreko arauak eta jardunbide egokiak ezartzea identifikatu eta ebaluatzea, merkatuan eskuragarri dauden zerbitzu profesionalak identifikatzea, eta industria produktuari aplikatutako zibersegurtasunaren eragina, hirugarren batzuekin duten harremana barne produktuak eta zerbitzuak hedatzerakoan. Garrantzitsua da nabarmentzea konfirmatu egiten dela zibersegurtasunaren arloan lana egiteko ingurune praktikoak behar direla, duen izaerarengatik eta ezagutza garatzeko.

Nori zuzendua:

Enpresak (enpresa handia, enpresa txikia, ETEak, irabazi asmorik gabeko erakundeak) eta herritarrak.

Estrategia del programa**1. Baliabideak (inputak):**

Aurrekontuak: langileak, inbertsioak eta kanpoko kontratazioak.

2. Garatu beharreko

Ezagutzaren sorkuntza bultzatzea Zibersegurtasun arloan.

Eragileen, enpresen eta industrien sentsibilizazioa eta prestakuntza.

Zibersegurtasunarekin zerikusia duten praktiken ezarpena zabaltzea eta enpresen eskura jartzea.

Prebentzioko eta esku-hartzeko tresnak eskaintzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Zibersegurtasun arloan prestakuntza duten pertsonak.

Zibersegurtasun arloan sentsibilizatuta dauden enpresak.

Prebentziorako eta esku-hartzeko tresnak garatzea.

Programaren arau esparrua:

9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskadiko fundazioei buruzkoa.


4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa.

Urteko helburua: Ohiko jarduera operatiboak egitea, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko, Zibersegurtasun Industrialaren arloan.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2018-ko Aurreikuspena	2018-ko Erreala	Agintaldiko helburua
Kontrataturako orduak laborategirako	Ehunekoa	0,00	0,00	0,00	100,00
Atenditutako enpresak	Kopurua	0,00	0,00	0,00	10,00
Atenditutako pertsonak	Kopurua	0,00	0,00	0,00	80,00

Joera


Kontrataturako orduak laborategirako – Ehunekoa



Atenditutako enpresak – Kopurua



Atenditutako pertsonak – Kopurua



Memoria

2018. urtea Fundazioa sortu den urte gisa deskriba genezake; izan ere, urte horretan erregistratu, ofizialdu eta jarri dira martxan haren alderdirik oinarritzkoenak eta operatiboak, Fundazioak bere helburuak bete ditzan, haren sorkuntzari erantzuten dioten jarduerak garatuz.

Horrela, bada, 2018. urtean ZIUR Fundazioak ezin izan du hirugarren batzuentzako zerbitzurik garatu eta eskaini.

Jarraian, 2018ko ekitaldian zehar gauzatu diren Fundazioa martxan jartzeko ekintza esanguratsuenak zerrendatzen dira: Eskrituren erregistroa, botere-egokitzapena eta Fundazioaren erregistro ofiziala.

Gobernantza- eta jarraipen-mekanismoak aktibatu dira, baita gainerako foru-fundazioekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinazioa mantentzeko mekanismoak ere.

Mekanismo eraginkorrak gaitu dira Fundazioak bere aurrekontua gauzatu ahal izan dezan, kanpo- zerbitzuen kontratazio bidez.

Kudeaketa ekonomikorako sistema jarri da martxan.

Oinarritzko kanpo-zerbitzuak kontratatatu dira Fundazioak modu egokian funtziona dezan.

Fundazioko pertsonen taldea handitu da.

Funtzionamenduaren oinarritzko alderdiak ebatzi dira.

Beharrezkoak diren lanak jarri dira martxan Fundazioak bere egoitza izan dezan.

Era berean, azpimarratu behar da Fundazioaren sustapena bultzatzeko ekintzak gauzatu direla, honako hauek, adibidez:

Modu aktiboan parte hartu da 6 forotan (Euskaltelen jardunaldi digitala, ADEGI Urteko Gosaria, Jaizkibel Ikastetxe Nagusiaren Zibersegurtasunari buruzko monografikoa, Etorkizuna Eraikiz esparruko bilkura, Basque Cyber Security Day eta Konekta Café).

4 hedabidetan azaldu da, prentsan (Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa) eta irratian (Onda Vasca eta Cadena SER-Radio San Sebastián).

25 bilera baino gehiago egin dira funtsezko zenbait eragilerekin (industria- eta zibersegurtasun- enpresak, unibertsitateak, teknologia-zentroak, irakaskuntza-zentroak, klusterrak eta erreferentziazko elkarteak eta zentroak, hala nola Zibersegurtasun Industrialeko Zentroa eta Basque CyberSecurity Centre), bere jarduera garatu eta, hala, proiektuaren benetako funtzionamendua ezagutarazteko eta haren arrakastan parte hartuko dutenek proiektuarekiko zer nolako ikuspegia edo pertzepzioa duten ulertzeko.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak Fundazioaren irismenean garatu dituen jarduerak azpimarratu behar dira, Zibersegurtasunaren estrategiari dagokionez eta Etorkizuna Eraikiz testuinguruan.

Gipuzkoako industria-enpresetan zibersegurtasuna sustatzeko programa, 400.000 €-ko irismena duena.

Industrysec Zibersegurtasun Industrialaren I. Kongresua Gipuzkoan, 2018ko maiatzaren 11n eta 12an.

Memoria

Mondragon Unibertsitatearen zibersegurtasunari buruzko masterraren sustapena.

Industriako ziber-resilientziaren eredu berrien ikerketa, Tecnun-en aldetik.

2018ko uztailan Fundazioa martxan jarri zenetik gauzatu diren jarduera esanguratsuenen laburpena aurkeztu ondoren, Patronatu Unibertsalak 2018ko ekainaren 26an onartutako 2018ko Jarduketa Planean zehaztutako helburuen betetze-maila azaldu da:

Langileen kontratazioa:

Helburua: Zuzendaritza Nagusia, Zuzendaritza Teknikoa eta administrazio-teknikariaren eginkizunak beteko dituen pertsona 1 txertatzea.

Emitza: Zuzendaritza Nagusia txertatu da eta Zuzendaritza Teknikoa 2019ko urtarrilean gauzatuko dela konfirmatu da. Bestalde, idazkaritzako langilea hautatzeko prozesua abenduaren 23an aktibatu da. Zerbitzuen prestazioa enpresei

Helburua: 2018an 62.000 €-ko diru-sarrerak sortzea.

Emitza: Fundazioaren egoera dela eta, ezin izan da diru-sarrerarik sortu.

Babesak

Helburua: 2018an 20.000 €-ko diru-sarrerak sortzea.

Emitza: Fundazioaren egoera dela eta, ezin izan da diru-sarrerarik sortu.

Aurrekontuaren gauzatzea:

Helburua: 2018ko jarduketa planean onartutako aurrekontua gauzatzea.

Emitza: 2018. urtean, gauzatu egin dira lehen azaldutako ekintzekin zerikusia duten aurrekontuko kontu sailak. Era berean, 2019an amaituko diren lanak hasi dira, nahiz eta aurrekontuko kontu saila 2018koa izan. Azkenik, fundazioa sortzeko prozesuaren ondorioz, inbertsioetarako kontu sail batzuk, adibidez, laborategiari, behatokiari, web plataformari eta ekipamendu informatikoari dagozkienak, 2019an gauzatuko dira 2018ko aurrekontuaren kargura.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Zibersegurtasunari buruzko sentsibilizazio jarduketaren garapena, prestakuntza, eta tresnen eta zerbitzuen garapena.

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	1.078.392,00	172.368,09		
1.1 Ekintza				
Zentroak aurreikusitako jardueraren garapena	368.232,00	61.586,26		65,00
1.2 Ekintza				
Zentroaren ekipamendua	710.160,00	110.781,83		5,00

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Diru-sarrerak eskuratzea

Beharraren eboluzioa:

Zibersegurtasunaren sektorean aritzen diren profesionalak gizonezkoak dira gehienbat. Programa honen helburua da sektorea kolektibo guztiei ezagutzera ematea sustatzea eta emakumeak sartzen laguntzea.

Kuantifikazioa: 8.618,35 (% 5,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Or 1. Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu.	(% 100,00)	Or 1.4. Barneko zein kanpoko komunikazio inklusiboa, genero estereotiporik gabekoa, emakume eta gizonak berdin ikustaraziz eta hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eginez.	16,00	Sexuaren aldagaia eta lortutako emaitzen genero azterketa txertatzen dituzten azterketa eta ikerketen ehunekoa (egindako azterketa eta ikerketa guztiekiko). Berariazko trebakuntza jaso duen berdintasunerako koordinazio foru egituretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (egitura horietan parte hartzen duten pertsona guztiekiko). Berdintasunerako klausulak jasotzen dituzten kontratu eta diru-laguntzen ehunekoa (egindako kontratu eta diru-laguntza guztiekiko).

HIZKUNTZA BEREINTASUNEN PLANA

Beharraren eboluzioa:

Fundazioaren helburuaren arabera, Gipuzkoako enprekin izan beharreko komunikazioa funtsezko jardura da enpresei zibersegurtasunaren arloan dituzten gaitasunak sendotzen laguntzeko. Hori dela eta, euskararen erabilerak jasota egon beharko du fundazioaren prozesuetan, arreta handiagoa jarritz enprekin duen harremanean, hartara, fundazioaren ezagutza eta baliabideak eskuratu ditzaten bermatzeko.

Kuantifikazioa: 8.618,35 (% 5,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 50,00)	Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da	27,00
2.2. Bezeroekiko/Herritarrekiko harremana ahoz zerbitzua eman eta produktua eskaintzeko orduan	(% 50,00)	2.2.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	5,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA			
Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	78.000,00	41.766,31	53,55
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	307.032,00	28.173,21	9,18
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	385.032,00	69.939,52	18,16
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	693.360,00	102.428,57	14,77
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	693.360,00	102.428,57	14,77
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	1.078.392,00	172.368,09	15,98

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		41.766,31		
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		28.173,21		
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		69.939,52		
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		102.428,57		
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		102.428,57		
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total		172.368,09		
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %		15,98		

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA				
Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	62.000,00			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	323.032,00	303.032,00	93,81	
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	385.032,00	303.032,00	78,70	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	693.360,00	693.360,00	100,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	693.360,00	693.360,00	100,00	
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	1.078.392,00	996.392,00	92,40	